

# Erlezaintza

## Eskolan egiteko ariketak





# Bisita egin baino lehen

## Kulturaren parte

Ba al dakizu euskal kulturaren, erlea animalia sakratua izan dela?

 *Bila ezazu honi buruzko informazioa.*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## Langile finak

Erlauntzak oso ondo antolatutako fabriken modukoak dira. Bertan bakoitzak du bere funtzioa eta benetako talde lana osatzen dute.

 *Lotu itzazu erlauntza batean egiten den funtzio bakoitza erle mota batekin.*

 ERREGINA

 ERLAMANDOA

 LANGILEAK

Erle erregina ernaldu

Polena bildu

Erlatokia zaindu

Argizariz abaraxkak egin

Erregin jalea sortu

Arrautzak jarri

Erle langileei elikagaia banatu

Nektarra bildu



### Eztia egiten

Erleek beste gauza askoren artean eztia ematen digute. Baina nola egiten dute? Pentsa, erleek irtenaldi bakoitzean 1000 bat lore bisitatzen dute paparoa nektarrez betetzeko!

Ordena ezazu eztia egiteko prozesua:

- Eztia eginda dagoenean gelaxka bakoitza operkulu izeneko argizarizko tapa batekin itxi.
- Abaraxketan ezti heldu gabea bildu.
- Paparoan nektarra bildu.
- Erleek loreetatik nektarra zurrupatu.
- Erleek hegalekin sortutako bentilazio sistemarengatik eztiati ura kendu ebaporazio bidez.
- Erlategira iritsi eta bertako erleek listuan duten entzimekin eztia egiteko prozesua segi.

### Eztia bakarrik ez

Aipa itzazu erleetatik lor daitezkeen 4 produktu eta hauen erabilerak:

PRODUKTUA	ERABILERA

Eta gai hauez gain, zein da erleen eginkizun garrantzitsuena naturan?

.....


.....



# Bisita egin ondoren

 Gurutzegrama:

1. Erle kolonia baten bizitokia.
2. Erleek, ezta gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten gelaxka hexagonalen multzoa.
3. Substantzia likatsua eta oso gozoa, erleek loreen nektarretik lortu eta abaraskatan biltzen dutena.
4. Erregina ernaltzea helburu duen erle harra.
5. Zenbait lorek jariatzen duen likido azukretxua.
6. Arrautzak jartzen dituen erlea.
7. Erlauntzeko argizaria, ezta, etab. ustiatzearren, erleak haztean eta zaintzeaz arduratzen dena.
8. Erleek udan kimuetatik jasotzen duten substantzia eta erlauntza barrua desinfektatzeko erabiltzen dutena.
9. Erleek jariatzen duten substantzia horixka eta urtzen erraza, beren bizilekua egiteko erabiltzen dutena.
10. Zenbait animaliairen eraso edo defentsarako organo zorrotza eta normalean pozoia ziztatzeko moldaturik dagoena.





## Eztia

Eztia da erleek egiten duten produktu ezagunenetarikoa. Ezagutzen al duzu?  
Ba al zenekien propietate asko dituela?

*Bila itzazu eztiaren propietateak!*

.....

.....

## Erlauntzako erle motak

*Erlauntzan erle mota ezberdinak daude, bila ezazu hauei buruzko informazioa eta osa ezazu taula:*

MOTA	EZAUGARRIAK	BITXIKERIAK

Erleak zaindu eta eztia eta kandelatoko tailerra egiten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira abarkak, gazta, barazkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!